

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2013ko 3. hiruhilekoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA  
*Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS  
*Dirección de Economía y Planificación*



### LABURPENEA

2013ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak narriadura leuntzeko joerari jarraipena eman zion eta %-1,1eko urte arteko tasa jaso zuen, bigarren hiruhilekoko emaitza lau hamarrenetan hobetuz. Hiruhileko arteko tasan, ez zen inolako aldaketarik izan (%0,0), beraz etengabeko jaitsierak kateatzen bizi den bi urteko epealdia amaitutzat jo behar da. Emaitza horiek eta espainiar ekonomiak bildu dituenak (%-1,1 eta %0,1) oso antzekoak dira, baina urrun daude oraindik Europar Batasuneko batez bestekoak izan dituenetatik. Dena dela, eremu horrek zailtasun garbiak ditu hasi berria den susperraldia sendotzeko eta urte arteko tasan %0,1eko hazkundera bakarrik lortu du (%0,2 aurreko hiruhilekoaren aldean).

Europako ekonomia bere hazkunde potentzialetik urrun dagoen arren, lurralde horretan bizi den hobekuntza baliagarria izan zaio EAEko ekonomiari kanpo saldoa hobetzeko. Izan ere, horixe izan da berriro ekonomiaren bultzagilea, hazkundeari zortzi hamarren ekarrita. Aitzitik, barne eskariak ez zuen aldatu bere emaitza eta ia bi puntu kendu zizkion BPGaren gehikuntzari. Azken kontsumoan eginiko gastuak (%-1,3) urrats bat atzera eman zuen hobetzeko bere joera leunean eta kapital eraketa gordinak (%-3,8) hobekuntza txikia izan zuen, nahiz eta aurreko hiruhilekoetako baina nabarmen apalagoa izan zen. Agregatu horren barnean, bilakaera positiboagoa hautematen da ekipamendurako ondasunen inbertsioan (%-0,8) gainontzekoan (%-5,1) baino, eraikuntza arloan egitasmo berririk ezak baldintzatuta.

Kontsumoaren agregatuan, bi osagai nagusiek bilakaera kontrajarriak marraztu zituzten. Alde batetik, familien kontsumoak lau hamarrenetan okertu zuen urte arteko tasa %-1,3an kokatu arte, eta beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoak puntu oso bat leundu zuen bere jaitsiera, %-1,1era arte. Enpleguaren galera eta soldata errenten hazkunderik eza dira oraindik kontsumo pribatuaren ahultasuna azaltzen duten arrazoi behinenak, ekonomia giroan dagoen ezkortasuna urratsez urrats leuntzen ari den arren.

Lehenago aurreratu denez, EAEko ekonomiaren bultzada garrantzitsuena kanpotik iritsi zen. Zehazkiago, kanpora bideratutako ondasunen eta zerbitzuen esportazioak %5,5 areagotu ziren termino errealetan (%6,3, berriz, eurotan neurtuta), azken bi urte eta erdiko epealdian lortu den zenbatekorik gorena baita. Aduanen informazioak adierazten duenez, gorakada horren zati bat energiako ekoizkinen salmentaren ondorioa da, baina gainontzeko produktuek ere esportazioak bizkortu zituzten. Orobat, inportazioak %4,0 erreala hazi ziren (%4,1 nominala), gero esportatuko diren produktuekin lotura estua dutelako.

Eskaintzaren ikuspegitik, hobekuntza nekazaritzaz bestelako arlo guztietan gauzatu da. Horri esker, balio erantsi gordinak puntu erdi bat hobetu zuen emaitza, nahiz eta oraindik urte arteko

jaitsierak (%-1,1) bildu dituen. Zehazkiago adierazita, industriak zortzi hamarrenetan leundu du beherakada, oraingoa %-1,9an kokatu baita. Eraikuntzak, berriz, urte arteko tasa negatiboan (%-5,2) jaso ditu berriro, baina puntu bat baino gehiago murriztu du aurreko jaitsiera. Azkenik, zerbitzuek lau hamarrenetan murriztu dute balio erantsia, administrazio publikoari lotuta dauden zerbitzuen bilakaerari esker (%-0,1), tasa positiboak berreskuratzen hurbil daudelako. Halaber, norabide positiboa hauteman da merkataritza eta ostalaritzan (%-1,4), nahiz eta oraindik denbora beharko da urte arteko gehikuntza tasak berreskuratu arte.

EAEko BPGak erakutsi zuen narriadura txikiagoak lanpostuen galera gutxitzea ekarri zuen, aurreko hiruhilekoko %-2,5etik hirugarreneko %-2,0ra igaro baitzen. Tasa horrek agerian uzten du 18.000 lanpostu galdu direla azken hamabi hilekoetan, gehienak industrian eta eraikuntzan (7.000 baino gehiago arlo bakoitzean), baina zerbitzuetan (3.000 baino zertxobait gutxiago) eta lehen arloan (600) ere eragina izan duena. Tasatan neurtuta, eraikuntzaren galera erritmoa (%-10,8) nabarmendu da, industriarena (%-4,0) eta zerbitzuena (%-0,5) baino askoz ere larriagoa delako. Hiruhileko horretan, langabezia tasa hamarren bat igo zen, %14,8ra arte.

Prezioei dagokienez, oro har moteltasuna da nagusi. Esate baterako, BPGaren deflatoea %1,0 baino ez zen hazi, inbertsioaren deflatoea negatiboa izan zelako eta inportazioena, berriz, zerotik hurbil kokatu zelako. Beste aldetik, KPIari mesedea egin dio 2012ko BEZaren goranzko eragina desagertu izanak eta urte arteko aldakuntza tasa %0,4an kokatu zen urrian, hots, azken lau urteko baliorik txikienean. Zenbateko hori are apalagoa izango zen botiken koordinketa abiarazi izan ez balitz, indize orokorra gorarazi duelako. Energiako ekoizkinak merkatzan ari dira eta, horren ondorioz, prezioetan ez da tentsiorik espero barne eskariak bizitasuna berreskuratzen ez duen bitartean.

2013ko amaierarako, suspertzeko joerak jarraituko duela aurreikusten da eta EAEko BPGaren urte arteko tasa %-0,3an kokatuko da, urte osoko batez bestekoa %-1,1ean utziz. Harez geroztik, Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenak urte arteko tasa positiboak iragartzen ditu, gero eta handiagoak izango direnak, europar ekonomia sendotuko den heinean. Izan ere, datorren urtean, EAEko barne produktu gordina (%0,9, kalkulu hauen arabera) eta Eurogunearena (%0,9 Consensus Forecasten arabera) ez dira oso ezberdinak izango. Kanpo saldoa berriro izango da ekonomiaren bultzagile nagusia, baina barne eskariaren ekarpenak positiboak eta gero eta handiagoak izango dira.


BPGaren hobekuntzari esker lanpostuen galera gero eta txikiagoa izango da eta 2014ko amaieran %0,0ra hurbilduko da. Halaber, langabezia tasa gaur egungoaren antzekoa izango da eta hamarren bat edo bi jaitsi zitekeen, biztanleria aktiboaren bilakaeraren arabera, dagoeneko erretiroa hartzen duten langileak lan merkatuan sartzen diren gazteak baino gehiago direlako.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


2013. urteko hirugarren hiruhilekoan, munduko hazkundeak ez zuen aldakuntza handirik izan, garapen bidean dauden ekonomien erritmo galera, multzo horretako salbuespena Txina izan zelarik, herrialde garatuen hazkunde biziagoek konpentsatu zutelako. Izan ere, hiruhileko arteko tasatan neurtuta, ekonomia eremu nagusi guztiek hazkunde positiboak lortu zituzten, baina urte arteko aldakuntza tasatan, ordea, susperraldia behar bezala sendotzeko aurretik dagoen bidea oraindik luzea da.

### Munduko ekonomia. BPG. Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat, ELGE eta NDF.

Zehazkiago adierazita, Txinako ekonomiak hazkundera bizkortu zuen 2013ko hirugarren hiruhilekoan, sei hilekoz jardura apaldu eta gero. Bertako gobernuak sustatu zituen laguntza neurri garrantzitsuek kapital finkoko inbertsioak, bereziki trenbideetan eta bestelako obra publikoetan bultzatu zituzten. Orobat, esportazioek galdutako eremuaren zati bat berreskuratu zuten eta hazkunde positiboak lortu zituzten. Aurreko zioek guztiek munduko bigarren ekonomia %7,8 haztea ahalbidetu zuten, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago. Hala ere, kontsumo pribatua oraindik ez da indartu, gero eta handiagoa den inflazio testuinguru batean, urrian %3,3ra areagotu baitzen. Beraz, ezin da baztertu BPGak laugarren hiruhilekoan berriro erritmoa galtzea.

AEBetan, hazkunde erritmoa bi hamarrenetan bizkortu zen eta ekonomiaren jardura %1,8 hazi zen. Barne eskariaren sendotasuna izan zen BPGaren bultzagile ia bakarra. Hain zuzen ere, higiezin eta egoitzen arloaren portaera onak, susperraldiaren oinarri garrantzitsuenetakoa izaten jarraitzen baitu, eta neurri txikiagoan kontsumo pribatuaren egonkortzeak gastu publikoaren beherakada konpentsatzea lortu zuten, azken hori hilabeteak baitaramatza beheranzko norabidean. Japoniako agregatu guztien bilakaera ona izan zen. Inbertsio publikoaren eta kontsumoaren sendotasuna gehi esportazioen susperraldi garrantzitsuak -%3,2 areagotu ziren, urtebete batez etengabeko jaitsierak bildu ondoren- BPGaren gehikuntza tasa %2,6ra eraman zuten, hots, aurtengo bigarren hiruhilekoan hazi zenaren bikoitza baino gehiago. Lan merkatuak ere hobekuntza horren berri izan zuen eta langabezia tasa %4,0ari eutsi zion urrian, beste ekonomia aurreratu askoren mailaren oso azpian dagoela. AEBetan, esate baterako, epealdi berean, langabezia tasa %7,3an kokatu zen, irailean zegoena baino hamarren bat gorago.

Europar Batasunak, berriz, hazkunde positiboak berreskuratu zituen, bost hiruhilekoz jarraian beherakadak jaso ondoren. Kontsumo pribatuak tasa positiboak lortu zituen, bi urtez uzkurtuta eta tasa negatibotan egon eta gero. Horri kontsumo publikoaren egonkortasuna eta inbertsioaren jaitsiera gutxitu izana erantsi behar zaizkio. Hiru arrazoi horiengatik barne eskariak hamarren bat ekarri zion hazkunderari. Izan ere Kontinente Zaharreko BPGa %0,1 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago eta urte hasierakoa baino bederatzi hamarren gehiago. Erresuma Batua eta Alemania susperraldi horren lidergoan zeuden, kontsumoaren bilakaera onari esker eta, Alemaniaren kasuan, inbertsioari esker ere, azkenean balio negatiboak atzean utzi zituelako. Frantziak ere eremuaren hazkundera parte hartu zuen, baina esportazioen bilakaera txarrak bere gehikuntza tasa murriztu zuen, aurtengo bigarren hiruhilekoaren aldean hiru hamarren gutxitu zelako. Hala ere, jardueraren suspertzea ia Europar Batasun osora hedatu zen, baita periferiako herrialdeetara ere, jaitsierak leundu zituztelako. Eurogunearen bilakaera ez zen horren ona izan eta tasa negatibotan jarraitu zuen, nahiz eta nolabaiteko hobekuntza jaso zuen, beherakada erritmoa (%-0,4) bi hamarrenetan gutxitu zuelako.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa %10,9an kokatu zen urrian, azken hamabi hilekoetan aldatu gabe dagoen maila berean, hain zuzen ere. Tasa horrek esan nahi du eremu horretan 26,3 milioi lagun baino gehiago zeudela lanik gabe. Prezioak, berriz, beheranzko joerari eutsi zioten eta urrian %0,9 arte moteldu zuten urte arteko tasa. Eremuko ekonomia ahulenek, inoizko langabezia tasarik gorenak baitituzte eta hazkundea itotzen duten austeritate neurriekin borrokatzen baitute, salneurrien apaltze garrantzitsua ezagutu dute urte osoan zehar. Esate baterako, Espainiak eta Portugalek 2012ko amaieran %3,0 eta %2,1eko inflazioa zuten, hurrenez hurren, baina urrian inflazioaren arrastorik ez zen (%0,0). Greziak, berriz, bost hilabetez jarraian prezioen jaitsierak izan ditu eta balizko deflazio bati aurre egin beharko dio.

Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, Espainiako ekonomiak nabarmen leundu zuen beherakada erritmoa. Hain zuzen ere, BPGak %-1,1eko aldakuntza tasa jaso zuen, bigarren hiruhilekoan zegoena baino bost hamarren hobe. Soldatapekoen ordainketa horren negatiboa izan ezenez, kontsumo pribatuak 1,1 puntu leundu zuen bere jaitsiera erritmoa. Horri kontsumo publikoaren gorakada gehitu behar zaio barne eskariaren hobekuntza azaltzeko. Izan ere, barne eskariak 2,5 puntuko ekarpen negatiboa egin zion hazkundeari, azken bi urteko kopururik txikiena baita. Kanpo arloak, berriz, 1,4 puntu ekarri zizkion gehikuntzari, aurreko hiruhilekoan ekarritako 2,1 puntu baino nabarmen gutxiago eta 2012ko amaieran bildu zituen 5 puntuetatik oso urrun. Dagoeneko hiru hiruhilekoz jarraian laburtu du barne eskariak kanpo arloarekin zeukan aldea. Joera horri eustekotan, barne eskariak hazkundearen bultzagile nagusiaren papera berreskuratuko du.

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek, lehen arloa izan ezik, beherakada erritmoa gutxitu zuten aurreko hiruhilekoaren aldean. Industriaren susperraldia nabarmendu zen, sei hilabeteko epe laburrean bi puntuz murriztu baitu bere jaitsiera. Hala eta guztiz ere, beherakadak garrantzitsuak izan ziren oraindik eta eraikuntzaren egoera oso kezagarria da.

Lan merkatuak ere nolabaiteko suspertzea erakutsi zuen arren, beraren egoera txarra da oraindik espainiar ekonomiaren arazo behinena. Zehazkiago adierazita, zerbitzuen eta eraikuntzaren enpleguak beheranzko erritmoa leundu zuen, nekazaritzarenak eta industriarenak murrizteko erritmoa areagotu zuten bitartean. Aurrekoaren ondorioz, enpleguaren urte arteko aldakuntza %-3,2an kokatu zen, bigarren hiruhilekoan jaso zen tasa (%-3,9) baino zazpi hamarren gorago, eta lanaldi osoko 522.000 lanpostu galdu ziren urtebete bateko epealdian. Datu hori azken bi urteko txikiena den arren, berriro izan zen Europar batasuneko okerrenetako bat. Are gehiago, hirugarren hiruhilekoan Greziak, Portugalek eta Txiprek bakarrik gainditu zuten enplegua gutxitzeko tasa hori. Beste aldetik, inflazioa %0,2an kokatu zen azaroan, urrian bildutakoa baino hiru hamarren gorago, urrikoa izan baitzen azken lau urtean jasotako lehen



beherakada. Azaroko igoera, bereziki, erregaiei eta lubrifikatzaileei zor zaie, aurtengo jaitsiera 2012ko azarokoa baino txikiagoa izan delako.

### ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2011	2012	2012		2013		
			III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	-1,0	-3,3	-3,3	-3,9	-3,7	-3,2	-1,5
- Familien gastua	-1,2	-2,8	-2,8	-3,6	-4,4	-3,3	-2,2
- Administrazioaren gastua	-0,5	-4,8	-4,9	-5,0	-2,0	-2,8	0,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	-5,4	-7,0	-7,5	-7,7	-7,5	-6,3	-6,3
- Aktibo finko materialak	-6,3	-7,8	-8,6	-8,3	-8,2	-6,6	-6,6
- Eraikuntzan	-10,8	-9,7	-10,9	-10,0	-10,2	-10,7	-10,3
- Ekipamendurako ondasunetan	5,3	-3,9	-3,8	-4,8	-4,3	1,0	0,2
- Aktibo finko immaterialak	7,8	2,9	4,8	0,4	-0,3	-2,7	-2,5
Nazio eskaria (*)	-2,1	-4,1	-4,2	-4,7	-4,4	-3,7	-2,5
Esportazioak	7,6	2,1	3,3	4,4	3,1	9,1	4,7
Inportazioak	-0,1	-5,7	-4,6	-3,5	-4,7	2,5	0,7
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>0,1</b>	<b>-1,6</b>	<b>-1,7</b>	<b>-2,1</b>	<b>-2,0</b>	<b>-1,6</b>	<b>-1,1</b>
Nekazaritza eta arrantza	5,6	-10,9	-11,2	-12,7	-6,3	0,5	-2,1
Industria	2,7	-0,5	0,2	0,4	-3,0	-2,6	-1,0
Eraikuntza	-9,0	-8,6	-8,7	-7,7	-6,0	-6,5	-6,2
Zerbitzuak	1,4	-0,3	-0,4	-1,1	-1,1	-0,9	-0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	-6,1	-4,9	-4,9	-5,1	-2,4	-1,3	-1,6
<b>GOGORATZEKOAK</b>							
- Kontsumoko prezioen indizea	3,2	2,4	2,8	3,1	2,6	1,7	1,2
- Enplegua (**)	-2,2	-4,8	-4,7	-5,0	-4,6	-3,9	-3,2

(\*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (\*\*) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.  
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Azkenik, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratu dituen datuek erakusten dute Estatuak 37.016 milioi euroko defizita pilatu zuela urria arte, hots, BPGaren %3,61 kontabilitate nazionalako terminoetan, aurreko hilabeteko datua %3,58 izan zen bitartean. Igoera horren atzean, Enpleguaren Estatuko Zerbitzuari emandako transferentzien aurrerapena dago, 2.000 milioi eurokoa, aurreko urtean horrelakorik ez baitzen egin, baina baita Gizarte Segurantzari eta Europar Batasunari eginiko ekarpenak ere.



## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

2013ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiaren BPGak %1,1eko jaitsiera jaso zuen urte arteko tasan, hots, aurreko epealdikoa baino lau hamarren txikiagoa. Beraz, dagoeneko hiru hiruhileko kateatu ditu beherakada erritmoa leuntzen. Tasa hori bat dator Estatu osoan bildutakoarekin, baina urrun dago Europar Batasuneko batez bestekotik, BPGaren gehikuntza txikiak (%0,1) jasotzen hasia baita. Aurreko hiruhilekoaren aldean, EAEko ekonomiak ez du hazkunderik lortu (%0,0), baina bertan behera utzi ditu azken bi urteko etengabeko jaitsierak.

Sektore guztiek, lehen arloak izan ezik, nabarmen leundu zituzten urte arteko aldakuntza tasa negatiboak. Izan ere, industriak %1,9ra mugatu du bere balio erantsiaren galera, aurreko balioaren aldean zortzi hamarreneko hobekuntza delarik, suspertzeko joera argi batean. Industria ekoizpenaren datuek joera positibo hori baieztatzen dute. Badirudi energiako adarrak bizitasuna galtzen ari direla, baina gainontzeko taldeen jarduera biziagotu izanak galera hori konpentsatzen du. Kontsumo iragankorreko ondasunak dira ikuspegi baikorrena eskaintzen dutenak, kontsumo iraunkorrekoek narriadura handiko irudia ematen duen bitartean. Beste aldetik, bai ekipamendurako ondasunek bai bitartekoek urratsak eman dituzte norabide zuzenean, baina oraindik urrun daude balio positiboak berreskuratzetik.

#### ESKAITZAREN ALDAGAIK

##### Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012		2013		
			III	IV	I	II	III
<b>BPG erreala</b>	0,3	-1,6	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5	-1,1
Nekazaritza eta arrantza	7,9	8,7	-2,0	16,3	-5,0	-1,6	-1,8
Industria eta energia	1,6	-3,7	-4,2	-3,8	-3,0	-2,7	-1,9
- Manufakturen industria	3,0	-3,7	-4,4	-4,2	-3,2	-2,5	-1,9
Eraikuntza	-7,9	-8,2	-7,7	-7,1	-6,8	-6,6	-5,2
Zerbitzuak	0,9	-0,4	-0,7	-1,0	-1,0	-0,7	-0,4
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,6	-1,1	-1,3	-1,9	-2,0	-1,6	-1,4
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,5	0,4	-0,9	-1,7	-1,7	-0,4	-0,1
- Gainontzeko zerbitzuak	0,4	-0,3	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1	0,0
Balio erantsi gordina	0,3	-1,7	-2,1	-2,0	-1,9	-1,6	-1,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-0,2	-1,1	-1,2	-1,6	-0,9	-0,5	-0,6

Iturria: Eustat.

Hala eta guztiz ere, industriaren etorkizunaz dauden zalantzak ez dira osorik argitu. Izan ere, Industria Ministerioak argitaratzen duen industria giroaren inkestak atzera pausua adierazten du sektorearen igurikimenetan, udako emaitza onen ondoren. Zehazkiago, urriko eta azaroko erantzunak ezkorragoak dira eskari zorrozaz eta amaitutako produktuen stockaz, nahiz eta zertxobait hobetu den ekoizpenaren joeraz duten iritzia. Orobat, erabili gabe dagoen ekoizpen ahalmena handitu da aurtengo azken laurdenean, inbertsioko egitasmo berriak abiarazteko aukerak geroratu.

### JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013				
			I	II	III	Urria	Azaroa
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	4,1	-5,9	-4,2	-3,8	-3,7	-2,2	---
Industria giroaren indizea	-12,3	-23,0	-25,7	-21,8	-14,6	-23,8	-22,5
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	75,1	74,2	67,9	70,5	77,2	---	71,3
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,2	-4,5	-5,7	-4,9	-4,1	-3,2	-3,1
<b>Eraikuntza</b>							
Koiunturako indizea	-10,1	-20,1	-20,0	-20,8	-18,1	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-13,0	-40,2	-21,1	-1,4	-37,6	---	---
Etxebizitzen salerosketak	-19,9	-20,7	-17,3	-20,6	-16,4	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-8,6	-12,0	-13,9	-13,3	-11,6	-9,8	-8,8
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko trafikoa	2,5	3,1	-6,5	-12,4	-11,3	-8,6	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	5,3	2,8	4,5	-5,7	-0,9	-2,8	---
Hoteletako okupazioa	46,0	46,1	33,1	43,6	60,3	44,7	---
Negozio zifren indizea	-0,9	-7,1	-7,7	-3,6	-1,9	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	-3,9	-6,3	-6,5	-6,5	-6,7	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,0	-0,8	-2,3	-2,2	-2,4	-1,9	-1,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eraikuntzaren balio erantsiak oso beherakada garrantzitsua (%-5,2) izan zuen berriro, baina tasa hori azken bost urteko txikiena da. Sektorearen tamaina murrizteko prozesua oso aurreratuta dago eta, une hauetan, eraikuntzak balio erantsi gordin osoaren %6,6 ekartzen du, hots, 1995-2000 epealdian, batez beste, izan zuena (%7,2) baino apur bat gutxiago eta inoizko mailarik altuena izan zuen garaian (2007ko amaieran) jaso zuen %11,0 baino nabarmen gutxiago. Koiunturako informazioak iradokitzen du bai eraikinen atalak bai obra zibilerenak oso

bizkor gutxitu dutela beren jarduera. Hala ere, obra publikoaren azken datuak ez dira horren negatiboak.

Zerbitzuek lehenago aipatu diren beste bi sektoreek baino hobeto egin dio aurre gaur egungo atzeraldari eta hirugarren hiruhilekoan bere balio erantsia %0,4 bakarrik murriztu zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Jaitsieraren leuntze hori agregatua osatzen duten hiru adarretan gauzatu da. Zehazkiago adierazita, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituenak %-1,4ko urte arteko tasa jaso zuen, aurreko datua baino bi hamarren hobea, nahiz eta oraindik talde ahulena den. Aitzitik, bai administrazio publikoari, hezkuntzari, osasunari eta gizarte zerbitzuei lotuta dauden jarduerak (%-0,1) nola gainontzeko zerbitzuek (%0,0) beren balio erantsia egonkortu dute eta litekeena da laster hazten hastea.

Zerbitzuen alorrean argitaratzen diren koiunturako adierazle orokorretako batek, INEk kalkulatu duen negozioen zifrak, alegia, sektorea suspertzeko bidean dagoelako ideia indartzen du. Hain zuzen ere, zerbitzuen indizeak bigarren hiruhilekoko %-3,6tik hirugarreneko %-1,9ra leundu zuen bere jaitsiera erritmoa. Hala ere, oraindik zalantzak daude azpisektore batzuetarako. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa adarreko zailtasunek jarraipena izan dezakete laugarren hiruhilekoan ere, hoteletan igarotako gualdiek eta aire bidezko trafikoak dagoeneko argitaratu dituzten datuen arabera, bi estatistikek urte arteko aldakuntza tasa negatiboak izan dituztelako. Orobat, Eustatek egiten duen zerbitzuen koiuntura indizeak zalantzak planteatzen ditu sektorearen susperraldiaz epe laburrean.

BPGaren hobekuntzarekin batera enplegu jaitsieraren leuntze garrantzitsua gauzatu zen. Izan ere, hiruhilekoka kalkulatu den kontabilitatean zehazten diren lanaldi osoko lanpostu baliokideak %2,0 gutxitu ziren azken urtebetean, hots, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago. Beraz, aldagaiaren susperraldiak jarraitu du, baina denbora luzea beharko da oraindik enplegu garbia sortzen hasteko. Aipatu den tasa horrek esan nahi du 18.000 lanpostu baino zertxobait gehiago galdu direla azken hamabi hilekoetan eta 100.000tik gora, berriz, alderaketa serie historiko osoko une gorenarekin, 2008ko erdialdean lortu baitzen, egiten bada. Enplegu galeraren leuntzea Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuetan ere hautematen da, laugarren hiruhilekoan ere segituko baita.


Enpleguaren analisia sektoreka egiten denean, baieztatuta geratzen da industria eta eraikuntza izan direla lanpostu gehien galdu dituztenak. Hain zuzen ere, azken urtebetean, biek 7.000 lanpostu baino gehiago galdu dute, nahiz eta bataren eta bestearen galera erritmoa oso ezberdina den. Izan ere, enpleguaren urte arteko aldakuntza tasa %-4,0 izan zen industrian,

baina %-10,8ra iritsi zen eraikuntzan. Hala eta guztiz ere, bi sektoreek beren jaitsierak leundu dituzte aurreko hiruhilekoetan jaso zituzten jaitsieren aldean.


Aipatu diren bi sektore horietatik urrun, zerbitzuek horren negatiboa ez den emaitza bat lortu zuten aurtengo hirugarren hiruhilekoan, aldakuntza tasa %-0,5ean uzten duena. Kasu horretan, azken urtebetean galdu diren lanpostuen kopurua ez da 3.000 lagunetara iristen. Are gehiago, jarduera adar batzuetan dagoeneko lanpostu garbia sortzen ari da. Esate baterako, Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuen arabera, azaroan higiezinaren jarduerak %2,9 areagotu zuten enplegua aurreko urteko mailarekin alderatuta. Orobat, hezkuntzak eta jarduera artistikoei afiliatuen kopurua igo zuten, hurrenez hurren, %2,5 eta %2,0. Era berean, osasun alorreko adarrek aldakuntza tasa positiboak berreskuratu zituzten (%3,1) profesionalak ez diren zaintzaileen araudi berriak adar horretan izan zuen eragina desagertu ondoren. Azkenik, etxeko langileen multzoak gehikuntza tasa garrantzitsua (%2,0) jaso zuen, baina kasu horretan emaitza zalantzazkoa da, eremu horretan indarrean sartu zen araudi berriak, jarduera horretan lan egiten duten pertsona guztiak afiliatzera behartzen baitu, bilakaera baldintzatzen duelako. Zerbitzuetan pisu gehien duen adarra, hots, merkataritza, oraindik tasa negatibo garrantzitsuetan (%-1,7) murgilduta dago, nahiz eta hilekoz hileko zenbakiak zuzentzen ari den eta jaitsiera erritmoa leundu.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza

BPGaren eta enpleguaren aldakuntza horiek %1,0an kokatzen dute produktibitatearen irabazia hirugarren hiruhilekoan, 1995etik izan diren batez besteko balioetatik (%1,1) hurbil. Aurreko hiruhilekoetan gertatu zen bezala, produktibitate irabazi handienak eraikuntzan lortu ziren (%6,3), sektore horretan gauzatu den lanpostuen murrizketa garrantzitsuaren ondorioz. Industriak, berriz, %2,2ko gehikuntza lortu zuen, batez besteko historikoa (%1,9) baino zertxobait handiagoa dena. Azkenik, zerbitzuetan produktibitate irabazia %0,1 baino ez zen izan, baina, beste aldetik, ez dago oso urrun sektore horretan jaso diren ohiko balioetatik (1995-2012 epealdiko batez bestekoa %0,6 izan zen).

## Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren ikuspegitik, hirugarren hiruhilekoan nabarmendu behar den datua kanpo arloak EAEko BPGari eman zion bultzada handia da. Aitzitik, barne eskaria ez zen gai izan aurreko hiruhilekoetan hasi zuen hobekuntza prozesuari jarraipena emateko. Hain zuzen ere, barne eskariak %-1,8an egonkortu zuen bere jaitsiera tasa, berau osatzen duten bi atal nagusiek portaera kontrajarriak eskaini zituzten prozesu batean. Izan ere, azken kontsumoan eginiko gastuak zertxobait okertu zuen aurreko emaitza eta kapital eraketa gordinak, ordea, jaitsiera erritmoa leundu zuen.

### ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012		2013		
			III	IV	I	II	III
<b>BPG erreala</b>	<b>0,3</b>	<b>-1,6</b>	<b>-2,0</b>	<b>-2,0</b>	<b>-1,9</b>	<b>-1,5</b>	<b>-1,1</b>
Barneko azken kontsumoa	-0,4	-1,2	-1,3	-1,4	-1,2	-1,1	-1,3
Familien gastua kontsumoan	-0,7	-1,3	-1,1	-1,5	-1,7	-0,9	-1,3
Administr. gastua kontsumoan	0,6	-0,8	-2,1	-1,1	0,5	-2,1	-1,1
Kapital eraketa gordina	-2,3	-6,3	-5,6	-5,9	-4,7	-4,0	-3,8
- Ekipamendu ondasunak	2,9	-5,5	-5,2	-5,7	-2,8	-1,1	-0,8
- Gainontzeko inbertsioa	-4,4	-6,6	-5,8	-6,0	-5,5	-5,3	-5,1
Barne eskaria	-0,9	-2,4	-2,3	-2,4	-2,0	-1,8	-1,8
Esportazioak	0,9	-3,3	-5,6	-8,1	-6,7	2,9	5,5
Inportazioak	-0,9	-4,2	-5,8	-8,4	-6,6	2,3	4,0

Iturria: Eustat.

Urte arteko terminoetan, azken kontsumoko gastuak %-1,3ko emaitza izan zuen, hau da, aurreko hiruhilekoko baino bi hamarren okerragoa. Orobat, agregatu horretan pisu gehien duen osagaiak, familien kontsumoak, %-1,3ko tasa markatu zuen, aurrekoa baino lau hamarren negatiboagoa dena. Hala eta guztiz ere, 2012ko udako hilekoetan eta irailean indarrean sartu zen BEZaren igoera saihesteko bizi zen erosketen aurrerapenak baldintzatzen du kontsumo pribatuaren oraingo bilakaera. Beraz, litekeena da hirugarren hiruhilekoko emaitzan beheranzko alborapena egotea, neurri batean datorren hiruhilekoan konpentsatuko zena. Edozein modutan, enpleguaren bilakaerak, langabezia tasa altuak, kreditu bat lortzeko zailtasunek eta oraindik negatiboak diren kontsumitzaileen igurikimenez kontsumo pribatua epe laburrean tasa positibotik kokatzea oztopatzen dute.

Aitzitik, administrazio publikoak kontsumoan egin zuen gastua ez zen bigarren hiruhilekoko bezain negatiboa eta %-1,1eko urte arteko balioa jaso zuen, aurreko emaitza puntu oso bat goraraziz. Defizit publikoaren gaineko konpromisoak betetzeko beharrak eragotziko du agregatu honek datozen hiruhilekoetan tasa positiboak berreskuratzea.

Kapital eraketa gordinaren portaera hirugarren hiruhilekoan zertxobait hobea izan zen eta berriro apaldu zuen urte arteko jaitsiera tasa, %-3,8ko datua jasota, azken bi urteko positiboena baita. Egoera oso ezberdina da inbertsioaren bloke batean eta bestean. Izan ere, ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordina nahiko hurbil dago balio positiboak berreskuratzetik, baina gainontzeko inbertsioak denbora luzeagoa beharko du zenbatekoak doitzeko. Hain zuzen ere, ekipamenduko inbertsioak %-0,8ko emaitza jaso zuen, baina gainontzekoak %-5,1.

Ekipamenduko inbertsioaz argitaratu diren koiunturako adierazleek informazio kontrajarria eskaini dute eta ez dute laguntzen agregatuaren etorkizun hurbila asmatzen. Alde batetik, ekipamenduko ondasunen ekoizpenak erakutsi duen suspertzeko joera nabarmena galgatu dela ematen du eta hiruhilekoko emaitza %-4,3an egonkortu du urte arteko tasan. Hala ere, serie leunduaren analisiak emaitza hobeak ematen ditu. Halaber, urriko datuak ere (%1,6) bilakaera positiboagoa iradokitzen du. Aitzitik, ondasun mota horren inportazioek urrats bat atzera eman zuten eta jaitsierak areagotu. Orobat, ekoizteko ahalmenaren erabilera txikiagoa izan zen hirugarren hiruhilekoan bigarrenetan baino, beraz epe laburrean ekoizteko ehuna handitzeko beharra geroratu da.

Kapital eraketa gordinaren beste atalak, eraikuntzan eginiko inbertsioa barnean hartzen baitu, bi hamarrenetan leundu zuen aurreko emaitza, urte arteko aldakuntza %-5,1ean utzi arte, hots, ekipamenduko inbertsioaren emaitzatik urrun. Eskura dagoen informazio estatistikoak pentsarazten du hala obra publikoa nola eraikinen atala oso tasa negatibotik daudela. Hala ere,

azken horrek narriadura handiagoko irudia eskaintzen du, etxebizitza eta industria pabilioi berrien eskaera oso txikia delako.

Txanponaren aurkia kanpo merkatuen bilakaeran dago, nolabaiteko suspertzea izan dutelako eta horri esker kanpo saldoak zortzi hamarren ekarri baitzizkioten EAEko BPGari, bigarren hiruhilekoko ekarpena puntu erdi bat hobetuz. Hiruhileko horretan gertatu zen bezala, bai esportazioek bai inportazioek goranzko bizitasuna erakutsi zuten hirugarren hiruhilekoan ere, aurreko emaitza positiboak areagotzeko balio izan zuena.

Zehazkiago adierazita, kanpora esportatutako ondasunak eta zerbitzuak %5,5 hazi ziren hirugarren hiruhilekoan termino errealetan, bi urte eta erdiko epealdian jaso den gehikuntzarik handiena baita. Inportazioak, berriz, %4,0 hazi ziren, hau ere zenbateko garrantzitsua dena aurreko hiruhilekoetako emaitzekin alderatzen bada. Termino nominaletan, hazkunde tasa horiek %6,3 eta %4,1 dira, hurrenez hurren. Beraz, kanpo merkataritzako deflatoreak oso txikiak izan ziren berriro, norberaren ekoizkinak beste merkatuetan saltzeko dauden zailtasunekin bat eginda.

Atzerrian saldutako ondasunen salmenten analisiak ere, Aduanak eta Zerga Berezien Sailak emandako datuetan oinarrituta, esportazioak berriro hazi zirela agerian uzten du, nahiz eta igoera hori bigarren hiruhilekoko baino txikiagoa izan zen. Hain zuzen ere, salmenten hazkundera bigarren hiruhilekoan lortutako %9,3tik hirugarreneko %2,7ra igaro da. Oro har, bizitasun handiagoa hauteman da garapen bidean dauden herrialdeetan, EAEko produktuen erosketak %5,2 areagotu zutelako, ELGEko herrialdeen multzoak %2,0 gehiago erosi zuen bitartean. Hala eta guztiz ere, EAEk atzerrian saltzen duen guztiaren hiru laurdenak oraindik azken herrialde horietara joaten dira.

Bigarren hiruhilekoan gertatu zenetik aldentuta, hirugarrenean gehiago hazi ziren Europar Batasunera bidalitako esportazioak AEBetara zuzendutakoak baino, azken hauek %0,6 baino ez baitziren areagotu, aurreko hiruhilekoetako gehikuntza bizen ondoren. Herrialdeak duen erregai eskariak baldintzatzen ditu tasa horiek, EAEk lurralde horretan saltzen duenaren erdia baino gehiago produktu energetikoak direlako. Merkataritza harreman hori egonkortutakoan, aldakuntza tasak maila nabarmen apalagoetan kokatu dira. Japonian eginiko salmentak oso bizi (%68,5) areagotu ziren, herrialde horretan ere erregai mineralen salmentari esker, merkatu horretara esportatu diren EAEko produktuetatik %62 atal horretakoak direlako. AEBetan ez bezala, ordurako EAEko produktu energetikoen helburua baitzen, Japonia merkatu berria da ekoizkin horietarako.



### ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2011	2012	2012		2013		
			IV	I	II	III	III
<b>GUZTIRA</b>	<b>20,1</b>	<b>-3,7</b>	<b>-6,6</b>	<b>-4,4</b>	<b>9,3</b>	<b>2,7</b>	<b>4.881.846</b>
ELGE	27,3	-5,5	-14,6	-5,8	10,7	2,0	3.741.352
Europar Batasuna	26,3	-9,1	-22,2	-9,8	3,9	4,3	2.989.558
Frantzia	36,6	-15,9	-37,5	-8,5	14,8	0,1	826.337
Alemania	25,4	-5,0	-10,7	-4,7	0,0	8,2	683.628
Erresuma Batua	21,6	12,0	-8,5	-19,2	-5,3	0,1	308.388
Italia	9,5	-20,6	-12,4	-8,0	5,7	-1,2	207.625
AEB	20,1	0,7	43,9	67,3	30,3	0,6	399.298
ELGETik kanpokoak	0,3	2,9	24,9	1,1	4,2	5,2	1.140.494

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europara bideratutako salmenten igoera, ia osorik, Alemaniako merkatuaren portaera onaren ondorioa da, EAEn eginiko erosketak %8,2 handitu zituelako, aurreko hiruhilabeteetako jaitsieren eta geldotasunaren ondoren. Aitzitik, hala Frantziak nola Erresuma Batuak %0,1 bakarrik areagotu zituzten erosketak eta Italiak, berriz, %1,2 gutxitu zituen euskal autonomia erkidegoan egin zituenak.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Txina izan zen berriro EAEko esportazioen helburu nagusia, nahiz eta herrialde horrekiko merkataritza harremanetan nolabaiteko gelditasuna hautematen den, hazkunde erritmo bizia lortu badu ere, EAEko esportazioen guztizkoan %2,4ko kuota ez baita handitu. Dena dela, salmentak %52,5 hazi ziren Txinan azken urtean. Beste aldetik, Brasilek %9,5 handitu zituen erosketak. Bi kasuetan, makineriak paper garrantzitsua jokatu du salmentetan eta, Brasileko kasuan, material aeroespazialak ere pisu nabarmena hartu du.

Oro har, hirugarren hiruhilekoan EAEko esportazioek lortu zuten gehikuntzaren oinarrian energia ekoizkinen salmenta dago, urte arteko tasan %16,3 bizkortu zirelako, gainontzeko produktuen hazkundera %0,9 izan zen bitartean. Ekipamendurako ondasunen multzoak %3,0 areagotu zituen salmentak, baina makinek eta tresnek bakarrik lortu zituzten emaitza positiboak (%8,3, garraio materialaren %-3,3aren aldean). Azpimarratu behar da produktu kimikoen gehikuntza bizia ere (%46,7), baita paperaren (%11,6) eta nekazaritzako ekoizkinen (%17,9) gehikuntza nabarmenak ere.

Inportazioen bilakaera esportazioena baino apalagoa izan zen eta urte arteko tasan %4,9ko jaitsiera jaso zuen, hainbat hiruhilekotan etengabeko igoerak lortu ondoren. Erosketak merkatu gehienetan gutxitu ziren, salbuespenak AEB eta Frantzia izan zirelarik. Lehenengo herrialdeari dagokionez, inportazioen hazkundera %62,7ra iritsi zen eta herrialde horretan erositako erregai mineralek protagonizatu zuten. Frantziari dagokionez, zenbatekoak askoz ere txikiagoak izan ziren (%1,9) eta burdina eta altzairuko galdaketa produktuen erosketak izan zuen gorakada handiaren ondorioa dira.

### INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2011	2012	2012		2013		
			IV	I	II	III	III
<b>GUZTIRA</b>	<b>12,1</b>	<b>-9,4</b>	<b>1,2</b>	<b>3,1</b>	<b>2,7</b>	<b>-4,9</b>	<b>3.788.093</b>
ELGE	9,8	2,6	-3,7	-9,8	-5,8	-2,8	2.331.888
Europar Batasuna	7,7	-6,8	-5,1	-7,2	-4,5	-10,9	1.594.368
Frantzia	12,2	-9,4	-13,0	-7,9	1,1	1,9	387.456
Alemania	18,3	-2,1	-10,5	-5,7	3,9	-13,0	397.196
Erresuma Batua	-2,8	-28,8	-12,5	-7,2	15,9	-30,6	100.004
Italia	1,9	-0,8	-6,3	-11,9	-12,4	-9,8	187.627
AEB	67,4	-13,0	-51,4	-58,9	-12,6	62,7	197.577
ELGEtik kanpokoak	15,3	-24,9	9,8	28,2	21,6	-8,2	1.456.205

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Inportazioen jaitsiera bai energiako ekoizkintan bai gainontzekoetan gauzatu zen. Zehazkiago adierazita, energiaren erosketa %3,2 gutxitu zen, hainbat hiruhilekoz jarraian igoera biziak jaso ondoren. Energiakoak ez diren produktuen erosketa, berriz, %6,1 murriztu zen. Azken hauen artean, paperaren erosketa bakarrik igo zen (%9,0), baina atal hau sailkapenean pisu gutxien dutenetakoa da. *Beste manufakturak* izenekoa ere zerbait handitu zen, baina oso gutxi (%0,4). Beste muturrean, produktu kimikoen (%-32,3) eta plastikoa eta kautxuaren (%-11,3) beherakada garrantzitsuak nabarmendu ziren. Inportazioetan pisu gehien duten taldeek, hots, metal arruntek eta beren manufakturek (%-0,3) eta ekipamendurako ondasunek (%-3,9) jaitsiera mugatuagoak izan zituzten.

Atzerriarekiko esportazioen eta inportazioen arteko aldeak saldo positiboa utzi zuen EAEko ekonomiarentzat, 1.094 milioi eurokoa hiruhileko horretan. Saldo hori garrantzitsua da, baina aurreko epealdikoa baino askoz ere txikiagoa da. Saldo horren atzean energiakoak ez diren

salerosketen 1.960 milioi euroko superabita eta energiako harremanen 867 milioi euroko defizita daude.

### Prezioak

2013ko hirugarren hiruhilekoan zehar, prezioek aurreko hiruhilekoan bizi zuten moteltzeko joerari jarraipena eman zioten. Esate baterako, BPGaren deflatorea hamarren bat murriztu zen apiriletik ekainera bitarteko mailaren aldean (%1,0, aurreko %1,1aren aldean), batez ere kontsumo pribatuaren deflatorea moteldu zelako, eskariak erakusten duen ahultasunaren ondorioz. Bitartean, kapital eraketa gordinaren deflatorea negatiboa izan zen berriro eta ez zen mugitu aurreko %-1,6tik. Beraz, bi urte eta erdiz prezioak jaisten eman ditu dagoeneko. Azkenik, kontsumo publikoaren deflatoreak tasa positiboetara itzuli zen, nahiz eta txikiak izan ziren (%0,2). Halakorik, 2013ko lehen hiruhilekoan bakarrik gertatua zen, funtzionarioen aparteko ordainketa aurreratu zen unean.

Kontsumoko prezioei dagokienez, igoerak moteltzeko joera garbia erakutsi zuten hilabeteak aurrera zihoazen heinean, eta urrian, argitaratu diren azken datuak hileko horretakoak baitira, KPI indizea %0,4an kokatu zen. BEZaren eta administrazioak ezartzen dituen beste salneurri batzuen iazko igoeren eragina desagertu izanak eta gorabehera handienak izaten dituzten produktuen prezioen moteltzeak, hala nola landu gabeko elikagaienak eta energiako produktuenak, jaitsiera hori azaltzen dute, barne eskariaren ahultasunak kontsumo prezioak igotzea galarazten duen testuinguru batean. Petrolioaren kotizazioaren bilakaerak on egin zien energiaren salneurriei, abuztuan 116 dolarreko gehieneko balioa markatu ondoren, merkatzen hasi baitzen, ordura arte zeuden tentsio geopolitikoak zertxobait baretu zirelako, petrolio gordinaren munduko eskaintza suspertu zelako eta produktu horren eskariaren hazkundean urte sasoi horretan gertatzen ohi den moteltzea jazo zelako.

Euroak dolarraren aldean lortu zuen balio irabaziak ere eragin garrantzitsua izan zuen inflazioaren moteltzean, EAE petrolio bezalako lehengaien inportatzaile garbia delako, produktu horien salneurria dolarretan zehazten baita. Hain zuzen ere, euroaren balioa %5 baino apur bat gehiago igo da azken urtebetean, azaroan 1,35 dolarretan trukatu arte. Horren ondorioz, petrolioaren prezioaren jaitsiera eurotan %6,2 izan da azken urtean.

Beheranzko joera nabarmen horrek Eurogunearrekiko inflazio tartearen aldekoa izatea ahalbidetu zuen. Horrelakorik ez zen gertatu 2012ko abuztutik, hots, zergen eta administrazioak ezarritako prezioen igoerak indarrean sartu ziren aurreko hilekotik. Hala eta guztiz ere,

Euroguneko inflazioa ere nabarmen murriztu zen, ekonomia jardueraren ahultasunak sortu duen testuinguruaren ondorioz, baina murrizketa hori tamaina txikiagokoa izan zen. Analisi zehatzago batek agerian uzten du EAEn aldeko diferentzia handienak etxebizitza eta garraio taldeetan gertatu zirela. Horrek esan nahi du diferentziala nagusiki energiako ekoizkinen jaitsiera handiagoetan oinarritu zela.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2011	2012	2013			Ekarpena
			II	III	Urria	
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	3,1	2,3	1,7	1,6	0,4	0,4
<b>Azpiko inflazioa (%82,0)</b>	1,8	1,5	2,0	1,7	0,7	0,6
- Elikagai landuak (%13,7)	3,8	3,3	3,7	2,9	2,0	0,3
- Industria ondasunak (%26,9)	0,7	0,3	0,7	0,7	0,1	0,0
- Zerbitzuak (%41,4)	2,0	1,7	2,3	2,0	0,6	0,3
<b>Hondar inflazioa (%18,0)</b>	9,5	6,1	0,7	0,9	-1,1	-0,2
- Landu gabeko elikagaiak (%6,8)	1,5	2,7	4,1	6,1	1,7	0,1
- Energia (%11,2)	15,3	8,3	-1,3	-2,2	-2,7	-0,3

Iturria: INE.

Inflazio orokorrak bezala, azpiko inflazioak ere beheranzko joerari segida eman zion, 2010etik inoiz jaso duen erregistrorik txikiena (%0,7) markatuz, adierazle hori osatzen duten atal guztien moteltzeari esker. Horiek horrela, elikagai landuak, oso aldakuntza tasa altuak jaso ondoren, apaldu ziren, tabakoaren salneurria igo bazen ere, gainontzeko osagaietan jaitsiera orokorrek konpentsatu zutelako. Orobat, industria ondasunak balio negatibotan kokatu ziren, barne eskaria jaitsi zelako eta automobilen salneurria, PIVE ekimenak baldintzatuta, murriztu zelako. Azkenik, zerbitzuek ere beheranzko joera erakutsi zuten, baina sektore horretako jarduerak duten aniztasuna kontuan hartuta, batzuen eta besteen portaera oso bestelakoa izan zen. Esate baterako, hiri barneko eta hirien arteko garraioak eta unibertsitateen hezkuntzak gorantz bultzatu zuten inflazioa, baina telefoniako zerbitzuen merkatzeak neurri batean orekatu zuten bestean igoera.

Hala eta guztiz ere, beherakada nabarmenena hondar inflazioak aurkeztu zuen, berriro balio negatiboetara itzuli baitzen. Bilakaera horretan zer ikusi handia izan zuen energia alorreko produktuen merkatzeak, baina baita landu gabeko elikagaien portaera hobe ere, azken honen eragina txikiagoa izan zen arren. Lehenengoek hazkunde tasak balio negatiboetara gutxitu

zituzten, 2011. urte osoan eta 2012ko lehen hiru hiruhilekoetan ezagutu zuen goranzko bilakaeraren ondoren. Aitzitik, bigarrenek aurreko gorakada garrantzitsuak leundu zituzten, udako garaia amaitutakoan.

### EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012		2013		
			IV	I	II	III	Urria
<b>Indize orokorra</b>	<b>3,1</b>	<b>2,3</b>	<b>2,8</b>	<b>2,5</b>	<b>1,7</b>	<b>1,6</b>	<b>0,4</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,2	2,7	3,3	3,2	3,7	3,7	1,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	9,8	5,8	5,6	8,4	4,7	5,8	5,5
Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,2	0,5	0,1	0,2	-0,1	0,5
Etxebizitza	7,8	5,7	6,3	4,7	0,4	-0,6	-0,1
Etxeko hornidura	1,5	1,1	2,5	2,9	3,0	1,9	0,4
Medikuntza	-0,6	-0,7	3,2	4,6	5,0	11,2	8,8
Garraioa	7,7	4,3	3,5	1,3	0,1	-0,1	-2,0
Komunikazioak	-0,8	-3,4	-2,4	-1,9	-4,1	-4,2	-7,4
Aisia eta kultura	0,3	1,0	1,8	2,4	2,4	1,7	0,2
Irakaskuntza	1,3	2,8	3,3	3,2	3,2	3,2	2,6
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,7	1,0	1,3	1,2	1,2	1,4	0,8
Besteak	2,7	2,4	3,6	3,0	2,9	2,1	0,6

Iturria: INE.

Lehenago aipatu den KPIaren moteltzean, neurri handiagoan edo txikiagoan, talde guztiek hartu zuten parte, nahiz eta haietako batzuk oraindik tasa altuetan dauden. Izan ere, medikuntza taldeak bete-betean nabaritu zuen botiken koordainketa EAEn ezarri izana. Orobat, tabakoaren zerga igoerek edari alkoholdunak eta tabakoa taldea batez bestekoaren gainetiko tasak markatzea eragin zuten. Azkenik, hezkuntzaren taldeak ez zuen moteltzeko joerarik erakutsi, unibertsitateko tasak igo zirelako, baina igoera horiek neurritsuak izan ziren, bereziki Estatuan ezarri ziren gehikuntza handiekin alderatzen badira.

Industriako prezioen indizeak, berriz, beherakada garrantzitsuak jasotzen jarraitu zuen. Izan ere, irailan 2009ko amaieratik inoiz jaso duen baliorik txikiena ezagutu zuen, %-2,0an kokatuta, eta urrian, berriz, ezagutu den azken hilabetea horixe baita, tasa hori %-1,5era leundu zen. Hala eta guztiz ere, indizea azken epealdietakoa baino balio askoz ere txikiagoetan ibili zen, batez ere energiaren osagaiari esker. Horren ondorioz, IPRI orokorra balio negatibotan kokatu zen ia urte osoan zehar. Sektore handien analisiari dagokionez, salbuespena

ekipamendurako ondasunen taldea delarik (%1,1), osagai nagusi guztiek ere balio negatiboak aurkeztu zituzten, beraien ekarpena lehenago aipatu den energiaren osagaiarena baino txikiagoa izan zen arren.

Azkenik, lan hitzarmenek etengabeko moteltzea iradokitzen dute, lan merkatuaren oraingo ahultasunarekin bat eginez. Azken hilekoetan bezala, soldaten batez besteko gehikuntza tasa txikiagoa izan zen urtean zehar sinatutako hitzarmenetan lehenago adostu ziren eta urte batzuetarako ziren hitzarmenetan baino. Dena dela, azken hilekoetan negoziazio kolektiboa bizkortzen ari dela hauteman den arren, oraindik soldatapeko guztien erdiak ez dauzka 2013rako lan baldintzak adostuta.

### HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,7	1,9	3,6	2,7	1,2
- Urtean zehar sinatutakoak	2,8	1,7	3,4	2,0	0,9
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,8	1,7	3,8	2,7	1,2
- Enpresako hitzarmenak	2,6	2,4	3,1	2,6	1,3

(\*) 2013ko iraila arte sinatutako lan hitzarmenak.  
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

## Aurreikuspenak

Munduko ekonomiarentzat 2013an eta 2014 aurreikusten den hazkundera zertxobait berrikusi da beherantz. Zuzenketa horren oinarrian bi arrazoi daude: AEBetarako orain espero diren datuak okerragoak izatea eta garatzen ari diren ekonomia batzuek pairatu duten moteltzea. Hala ere, 2014ko hazkundera 2013an jasoko dena baino handiagoa izango da eta susperraldia orokorra izango da eremu guztietan. Consensus Forecast-ek azaroan egin zituen aurreikuspenek %2,4an eta %3,1ean kokatzen dute munduko ekonomiaren hazkundera 2013an eta 2014an, hurrenez hurren. Bizkortze neurritsu hori ez dago ziurgabetasunetatik eta arriskuetatik libre. Moneta politika hedakorretan egin daitezkeen aldaketek, AEBetako politika fiskalak, azaleratzen ari diren ekonomien doikuntzek eta Euroguneko susperraldi ahulak edozein unetan ekar dezakete okertzea ekonomia hazkunderaren igurikimenean.

Estatubatuar ekonomia, Consensus Forecast-en arabera, %1,7 haziko da 2013an eta %2,6ra bizkortuko da 2014an. Doikuntza fiskalaz politikariek izan duten portaerak eragin du ziurgabetasun hori bertako ekonomian. Eremu fiskalean, aurrekontuaz eta zorraren sabaiaz hartu behar zuten erabakia 2014ko lehen hiruhilekora atzeratu da eta berau da etorkizuneko aurreikuspenak okertu dezakeen arrisku nagusia, ezegonkortasuna sortuz. Mehatxu horrek ekonomiaren hazkundean izan ditzakeen ondorioak bazterrean utzita, datozen hiruhilekoetan eskari pribatua sendo haziko dela eta arlo publikoa hedatuko dela aurreikusten da. Jarduerak bizitasun garrantzitsua erakutsiko du, moneta arloko baldintzak egokiak izango direlako eta desoreka fiskala murriztuko delako.

### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	PIB			Kontsumoko prezioak		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014
Munduko ekonomia	2,7	2,4	3,1	3,0	2,7	3,0
AEB	2,8	1,7	2,6	2,1	1,5	1,8
Kanada	1,7	1,7	2,2	1,5	1,1	1,7
Japonia	1,9	1,9	1,6	0,0	0,2	2,3
Eurogunea	-0,6	-0,4	0,9	2,5	1,4	1,3
Europar Batasuna	-0,4	0,0	1,3	2,4	1,6	1,7
Alemania	0,7	0,5	1,7	2,0	1,6	1,8
Espainia	-1,6	-1,3	0,5	2,4	1,5	1,1
Frantzia	0,0	0,1	0,8	2,0	1,0	1,4
Herbehereak	-1,3	-1,2	0,3	2,5	2,6	1,7
Italia	-2,6	-1,8	0,5	3,0	1,3	1,4
Erresuma Batua	0,1	1,4	2,3	2,8	2,7	2,6
Asia eta Ozeano Barea	4,8	4,6	4,7	2,5	2,6	3,2
Ekialdeko Europa	2,4	2,0	2,9	6,5	5,0	4,8
Amerika Latinoa	2,8	2,6	3,0	6,1	8,0	7,3

Iturria: Consensus Forecast (2013ko azaroa).

Euroguneak suspertzeko zantzuak erakutsiko ditu datozen hiruhilekoetan. 2013rako, aldakuntza tasa %-0,4izango dela aurreikusten da eta 2014an, berriz, %1,0aren inguruko hazkunde positiboa lortuko da. Atzeraldiaren irteera astiro gauzatuko da eta jarduera bizitasun gutxirekin garatuko da. Moneta politikari dagokionez, igurikimenez seinalatzen dute interes tasek maila apaletan jarraituko dutela eta hazkundeari lagunduko diotela. Laguntza horrekin batera,



2014rako aurreikusi den doikuntza fiskala leunagoa izango da. Kredituak lortzeko baldintzak hobeak izatea eta eragileen konfiantza igotzea ezinbestekoak izango dira barne eskariaren sendotzea lortzeko. Europako moneta batasunean kezka handia dago bankuen balantzeez eta erresistentzia testez, bankuen gainbegirale bakarreko egitasmoarentzat ezinbestekoa baita.

Espainiarentzat, adostasun ia erabatekoa dago 2013ko batez besteko hazkundera %-1,3 izango dela aurreikusteko orduan. 2014rako, ordea, tarte zabalagoa dago eta hazkunde tasa, ordurako positiboa izango dena, NDFk estimatu duen %0,2aren eta Ceprederen %1,0aren artean dago. Barneko doikuntzen eraginek, nazioarteko ekonomien suspertzeak eta politika fiskal nasaia batek bultzada handiagoa emango diote jarduerari. Espainiako ekonomiak atzean utziko du atzeraldia 2013an zehar, eta 2014an bizitasuna irabaziko du. Espainiar ekonomiaren bultzagile nagusia kanpo eskaria izango da, atzerrian egingo diren salmentak nabarmen areagotuko direlako datozen hiruhilekoetan. Beste aldetik, barne eskaria sendotzen hasiko da eta ekarpen positiboak egingo ditu 2014an zehar.

Espainiako lan merkatuaren bilakaeraz egin diren aurreikuspenek aldaketa txikiak izan dituzte aurreko txostenen emaitzekiko. Funcasek argitaratzen duen panelak %3,2an eta %0,2an kokatzen ditu enplegu galerak 2013rako eta 2014rako, hurrenez hurren. Hala ere, analisigile batzuek espero dute ekonomia jarduera 2014ko bigarren seihilekoan hasiko dela enplegua sortzen. Kontuan hartu diren bi epealdietako langabezia tasa hamarren bat beherantz zuzendu da eta %26,4an kokatu da 2013rako eta %25,8an, berriz, 2014rako.

### HIRUHILEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2013ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013		2014				2014
	IV	2013	I	II	III	IV	
BPG	-0,1	<b>-1,2</b>	0,5	0,9	1,2	1,4	<b>1,0</b>
Kontsumo pribatua	-0,6	<b>-2,7</b>	-0,1	0,0	0,3	0,5	<b>0,2</b>
Kontsumo publikoa	-1,9	<b>-2,5</b>	-1,2	-1,0	-0,5	0,0	<b>-0,7</b>
Kapital finkoaren eraketa gordina	-5,1	<b>-6,2</b>	-3,6	-1,3	0,5	1,3	<b>-0,8</b>
- Inbertsioa ekipamenduan	1,9	<b>-0,3</b>	0,6	-0,1	2,3	3,0	<b>1,5</b>
- Inbertsioa landutako aktibotan	-1,4	<b>-1,4</b>	-1,3	0,8	3,0	3,1	<b>1,4</b>
- Inbertsioa eraikuntzan	-9,5	<b>-10,1</b>	-6,5	-2,3	-0,8	0,2	<b>-2,4</b>
Barne eskaria	-1,8	<b>-3,3</b>	-0,9	-0,4	0,2	0,7	<b>-0,1</b>
Esportazioak	4,4	<b>5,5</b>	5,0	5,3	5,5	5,8	<b>5,4</b>
Inportazioak	-0,2	<b>-0,7</b>	0,7	1,8	3,1	4,1	<b>2,4</b>

Iturria: CEPREDE

## EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa eguneratu du 2013 eta 2014 epealdirako. Aurreikuspen horietan ez da aldaketa nabarmenik irailean argitaratu ziren zenbatekoen aldean. Izan ere, BPGa %1,1 gutxituko da 2013an eta datorren urtean jarduera %0,9 haziko da, nazioarteko testuinguru biziagoari esker eta barne eskaria bultzatuko duen politika fiskal ez hain murriztaile baten ondorioz.

### EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2013ko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2013	2014				2014
	IV		I	II	III	IV	
BPG	-0,3	<b>-1,1</b>	0,3	0,7	1,0	1,3	<b>0,9</b>
Azken kontsumoa	-0,7	<b>-1,1</b>	-0,2	0,2	0,5	0,8	<b>0,3</b>
Kontsumo pribatua	-0,6	<b>-1,1</b>	0,1	0,5	0,9	1,2	<b>0,7</b>
Kontsumo publikoa	-1,0	<b>-0,9</b>	-0,9	-0,9	-0,8	-0,5	<b>-0,8</b>
Kapital eraketa gordina	-2,6	<b>-3,8</b>	-1,8	-1,1	-0,6	0,0	<b>-0,9</b>
Barne eskariaren ekarpena	-1,1	<b>-1,7</b>	-0,6	-0,1	0,3	0,6	<b>0,1</b>
Kanpo saldoaren ekarpena	0,8	<b>0,6</b>	0,9	0,8	0,7	0,7	<b>0,8</b>
Lehen arloa	10,7	<b>0,6</b>	10,5	4,1	-4,7	-3,5	<b>1,6</b>
Industria	-0,9	<b>-2,1</b>	0,6	1,2	1,6	2,3	<b>1,4</b>
Eraikuntza	-4,8	<b>-5,8</b>	-4,1	-3,7	-2,4	-1,5	<b>-2,9</b>
Zerbitzuak	-0,1	<b>-0,6</b>	0,5	0,9	1,2	1,3	<b>1,0</b>
Balio erantsi gordina	-0,5	<b>-1,3</b>	0,3	0,7	1,0	1,3	<b>0,8</b>
Ekoizkinen gaineko zergak	0,1	<b>-0,5</b>	0,7	1,2	1,4	1,2	<b>1,1</b>
BPGaren deflatorea	1,0	<b>1,1</b>	1,1	1,2	1,3	1,4	<b>1,3</b>
Enplegua	-1,5	<b>-2,2</b>	-1,0	-0,8	-0,3	-0,1	<b>-0,5</b>
Langabezia tasa	14,6	<b>14,4</b>	14,6	14,4	14,0	13,9	<b>14,2</b>

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Hain zuzen ere, barne eskariak berriro galgatu du barne produktu gordinaren hazkundera 2013an eta 2014ko zati batean. Baina ekarpen negatibo hori jaitsiera leuntzen joango da eta datorren urteko bigarren seihilekotik aurrera barne eskariak hazkunderari egingo dion ekarpena positiboa izango da. Kontsumo pribatua urratsez urrats suspertuko da kontuan hartu den aurreikuspen epealdian zehar. Familien finantza aberastasun garbiak izango duen gehikuntzak, interes tasa apalek, inflazioan tentsiorik ezak eta BEZaren gehikuntzak izan zuen eragin negatiboa desagertu izanak bultzada emango diote eskariaren agregatu nagusiari. EAEko

kontsumitzaileen konfiantza hobetzen hasiko da, baina oraindik kezka nagusia lan merkatuaren egoera izango da.

Gastu publikoak berriro murriztuko du BPGaren hazkundera 2013an eta 2014an. Kontu publikoen doikuntzak bere horretan jarraituko du datorren urtean eta ahalegin fiskal horrek barne eskariaren agregatu horren norabidea baldintzatuko du. Beste aldetik, makineria eta ekipamendua biltzen dituen kapital eraketa gordina suspertuko da eta 2014an hazkundera finkatuko du. Esportazioen bilakaera onak eta barne eskariaren gorakadak hazkunde positiboetara eramango dute ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa. Eraikuntzan eginiko inbertsioari dagokionez, aurreikuspenek beherakadak iragartzen dituzte berriro 2014an. Horrek agerian uzten du sektorearen doikuntza ez dela amaituko epealdi horretan.

Kanpo eskariak berriro gidatuko du EAEko ekonomiaren hazkundera 2014. urtean. Eurogunea krisitik irten izanak EAEko salmentak nabarmen areagotuko ditu nazioarteko merkatu horietan. Inportazioak ere bizkortuko dira urte horretan, barneko koiunturak hoberantz egingo duen heinean.

Eskaintzari dagokionez, oro har jarduera adar guztiek beherakada motelduko dute 2013an zehar eta bilakaera horri jarraipena emango diote 2014an ere. Sektore guztiek, salbuespen bakarra eraikuntza izango delarik, ekarpen positiboa egingo diote EAEko balio erantsi gordinaren hazkundera 2014an. Egoitzen eraikuntzak zeinu negatiboei eutsiko die urte arteko aldakuntza tasetan, baina narriadura erritmoa galgatu delako aurreikusten da. Industria suspertuko da, barne eskariaren eta nazioarteko testuinguruaren hobekuntzari esker, EAEko industriaren ondasunak eskatuko dituztelako. Industriaren hazkundera, urte osoko batez bestekoan, %-2,1ean eta %1,4an kokatuko da, hurrenez hurren, 2013an eta 2014an. Beste aldetik, zerbitzuen jarduerak ere suspertzeko joera leuna baina etengabea erakutsiko du eta 2013ko jaitsiera %-0,6 izango da. Susperraldia indartuko da eta 2014. urtean %1,0ko hazkundera lortuko du.

lan merkatuaren aldagaiei dagokienez, ia ez dago alderik aurreko hiruhilekoan argitaratu zen eszenategiaren aldean. Izan ere, 2013. urteko batez besteko jaitsiera tasa %2,2 izango da eta langabezia tasa, berriz, %14,4. 2014rako, lanpostuak galtzeko erritmoa leunduko dela aurreikusten da eta enpleguaren aldakuntza tasa %-0,5era mugatuko da. Langabezia tasari buruzko aurreikuspena 2014rako %14,2an kokatzen da, biztanleria aktiboa zertxobait murriztuko dela espero delako.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurkeztu duen eszenategi makroekonomiko horri garrantzi handiko arrisku bat gehitu behar zaio, Fagor kooperatibak aurkeztu duen hartzekodunen konkurtsoa. Egoera horrek kezka handia piztu du gizarte eragileengan, zuzen eta zeharka EAEko ekonomiaren hazkunderan eta lan merkatuan izan ditzakeen balizko eragin kaltegarriengatik.